

Izendatu dira Argitzen prozesuko Herritarren Batzarra osatuko duten 50 debagoienatarrak

Urriaren 18an martxan jarriko den 50 herritarren taldea osatu da dagoeneko. Gutun bidez gonbidapena jaso dutenen artean, parte hartzeko baiezkua adierazi dutenen artean aukeratu dira 50 horiek eta taldea askotariko pertsonaz osatu da, eskualdeko argazki soziodemografikoa ateratzeko hainbat aldagai gurutzatu baitira: herria, generoa, adina eta jatorria, besteak beste.

Prozesuan parte hartzeko interesa erakutsi duten eta azkenean kanpoan gelditu diren herritarrei eskerrak adierazi nahi dizkie Argitzenek, baita gonbidapena jaso eta ezezkua erantzuteko denbora hartu dutenei ere.

Herritarren Batzarra osatuta, prozesua bere fase deliberatiboan murgilduko da. 50 kideek energia trantsizioaren inguruko ezagutzak jasoko dituzte hainbat adituren eskutik eta gomendio-sorta bat landuko dute galdera honi erantzuteko: “Zein ekintza edo aldaketa burutu beharko dituzte Debagoieneko tokiko eragileek energia kontsumoa murrizteko eta energia berriztagarrien garapenerako?”.

Udazkeneko bost larunbatetan bilduko da Herritarren Batzarra Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketako ikastetxe publikoan. 9:30ean hasi eta 18:30ean bukatuko dira saioak eta, bost saiotan zehar, herritar talde horrek egiteko nagusi hauek izango ditu:

- 1. fasea: Adituen informazioa jaso. Gaiaren inguruko informazio zehatza, garrantzitsua eta askotarikoa eskura izango du Herritarren Batzarrek.
(*Eranskinean aurkituko dituzu fase honetan landuko diren gaiak eta hizlariak).
- 2. fasea: Jasotako informazioaz hausnartu. Gogoeta partekatu (deliberatu), adostasuna bilatzeko.
- 3. fasea: Gomendioak helarazi. Prozesuaren sustatzaileari, Mandatu Organoari, emaitzak, gomendioak helarazi.

Azaroaren 29an izango da azken saioa, orduan helaraziko dio Herritarren Batzarrek bere gomendio sorta Mandatu Organoari. Gomendio sorta hori publiko egingo da eta sektore publiko, pribatu eta komunitarioko 18 eragilek osatutako Mandatu Organoak konpromisoa hartu du gomendio horiei erantzuna emateko.

Egin bat!

Mandatu Organoan parte hartzen ari diren eragileez gain, argitzen.eus-eko Egin bat! atalaren bitartez, beste hainbat eragilek ere euren atxikimendua eman diote prozesuari, babesa emanaz mahai gainean jarritako dilemari eta prozesuaren dinamika eta lan egiteko moduari, besteak beste, Arizmendi Ikastola, Bailara industrial network, Biolur Gipuzkoa, ELA, Emun, Ereindajan Arrasate, Goiena, LAB, Mondragon Unibertsitatea, Naturtzaindia, eta TMeLab.

Informazio gehiago: argitzen.eus
komunikazioa@argitzen.eus

HERRITARREN BATZARRERAKO INFORMAZIOA FASEA: GAIAK ETA HIZLARIAK

1. TESTUINGURUA

- 1.1. Dilemaren testuingurua:
 - 1.1.1. Klima larrialdia
(1) Elisa Sainz de Murieta – BC3
 - 1.1.2. Energia trantsizioa eta ekosoziala
(2) Luis González Reyes / (3) Emilio Santiago Muño
- 1.2. Energia plan eta ildo estrategikoak
(4) Iñaki Bóveda - EVE
- 1.3. Debagoieneko energia-diagnostikoa
(5) Eduardo Miera - Tecnalia

2. ENERGIA TRANSTIZIORAKO BIDEAK

- 2.1. Kontsumoa murrizteko aukerak
 - 2.1.1. Industria
(6) Luis Mir - Ikerlan
 - 2.1.2. Mugikortasuna
(7) Igor Villarreal - Mubil
 - 2.1.3. Hiri eremua
(8) Sara Velázquez Arizmendi
- 2.2. Energia sorkuntza eta berriztagarrien garapena
 - 2.2.1. Lurralde antolamendua
(9) Maite Uriarte - EHU
 - 2.2.2. Berriztagarriak
(10) Unai Pascual - BC3

3. GIZARTE EHUNA ETA ELKARLANA

- 3.1. Erronka aurrean lankidetzak markoa
(11) Miren Larrea - Orkestra
 - 3.2. Eskualdeko mahai sektorialak: industria, landa eremua eta biodibertsitatea eta, gizarte bazterkeria
-

1. ARDATZ TEMATIKOA: TESTUINGURUA

1.1. GAIA: Dilemaren testuingurua - Mundu mailako egoera eta erronka

1.1.1. GAIA: Klima-larrialdia eta mundu mailako krisi egoera

Helburua: klima-aldaketaren dilemma —klima-larrialdi globala— testuinguruan jartzea. Klima-aldaketaren ingurumen-, sozioekonomia- eta etika-alderdiak ikuspegi integral eta sistemiko batetik aztertzea. Egoeraren erantzukizuna ikuspegi antropogeniko batetik ulertzea, baita gure bizitzetan duen eragina eta ondorioak ere.

Hizlaria: Elisa Sainz de Murieta, Geologia Zientzietan doktorea, EHUtik. Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea eta Klima Aldaketaren Basque Centre for Climate Change (BC3) ikertzaile elkartua.

1.1.2. GAIA: Bi ikuspegitik energia-trantsizioari buruz, trantsizio ekosozialago baten barruan

Helburua: Bizimodu jasangarrietarako trantsizioa prozesu sistemiko gisa aurkeztea, trantsizio ekosoziala zer den azalduz. Energia-trantsizioa prozesu zabalago honen barruan kokatzea, aldagai gako eta zeharkako gisa. Energia-trantsizioa sustatzeko dauden ikuspegiak aurkeztea, garatu beharreko politikak eta bideak zehaztuz, eta aukerak eta mugak deskribatuz.

Hizlariak:

- Luis Gonzalez Reyes: Kimika Zientzietan lizentziatua. Ecologistas en Acción-eko kidea da, eta Garúa S. Coop. Mad.-eko bazkidea.
- Emilio Santiago Muiño: Klima antropologoa, Espainiako Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nazionaleko (CSIC) kidea eta Gizarte Antropologian doktorea.

1.2. GAIA: Eskala anitzeko energia trantsiziorako esparrua - Planak eta lerro estrategikoak

Helburua: Energia Trantsiziorako Planen eta haien ildo estrategikoen azterketa. Debagoienari eragiten dioten eskualdez gairikiko betebeharren identifikazioa eta deskribapena. Plan hauek gomendioak edo jarraibideak dituzte kasu batzuetan, eta beste batzuetan, betetze-aginduak dira (lege-indarra dute).

Hizlaria: Iñaki Boveda Uriarte, Ingeniaria eta egun, EVE-EEE (Energiaren Euskadiko Erakundea), Energia Plangintza eta erregulaziorako zuzendaria.

1.3. GAIA: Eskualdeko energia egoeraren diagnostikoa

Helburua: Eskualdeko energia-egoera ulertzen laguntzen duten adierazleak aurkeztea: kontsumoa eta isuriak, etorkizuneko energia sortzeko gaitasuna eta energia-mendekotasuna.

Hizlaria: Eduardo Miera, Ekonomia eta Enpresa Administrazioako lizentziatua du EHUUn eta Nazioarteko Merkataritzan masterra. 2015etik, Tecnalian, Energia eta Ingurumen Dibisioko proiektu kudeatzaile lanean.

2. ARDATZ TEMATIKOA: ENERGIA TRANTSIZIORAKO NORABIDEAK: KONTSUMOA MURRIZTEA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEA

2.1. GAIA: Energiaren kontsumoa murriztea - Eragin eremuak, aukerak eta ondorioak

Helburua: Energia-kontsumoa murrizteko aukerak aztertzea. Kontsumoa eta isuriak murriztu ditzaketen sektoreak identifikatzea, har daitezkeen neurriak zehaztea eta hartutako erabakien ondorioak edo inpaktuak identifikatzea, galderaren formulazioan sartutako alderdiak aztertuz. Energia-kontsumoaren murrizketa hiru eragin-eremu nagusitan jorratuko da: industria, mugikortasuna eta hiriguneak (energia-kontsumo eta isuri maila altuagoekin).

Hizlariak:

- Industria: Luis Mir. Automatika eta Elektronika Industrialak Mondragon Unibertsitatean gauzatu zuen, egun IKERLANeko Zuzendaritza Batzordeko kidea da Merkatu eta Proiektuen Zuzendaritza postua hartuz.
- Mugikortasuna: Igor Villarreal, MUBIL Fundazioko zuzendaria da. Kimikan lizentziatua, bere ibilbide profesionala IKERLAN teknologia zentroan garatu zuen.
- Hirigunea: Sara Velazquez, Arkitektoa, VArquitectos-eko bazkidea 21 urtez. Etxe pasiboen diseinatzailea, Breeam aholkularia, 700 ia energia-kontsumoko etxebizitza baino gehiagoren diseinatzailekidea.

2.2 GAIA: Energia berriztagarrien garapena

2.2.1. GAIA: Lurralde plangintza energia berriztagarrien garapenean

Helburua: Lurralde-plangintzaren garrantziaz informatzea energia berriztagarrien hedapenean. Energia berriztagarrien instalazioak zabaltzerakoan, ezinbestekoa da lurralde-eremu bakoitzaren mugak, funtzioak eta aukerak ulertzea eta lurralde-plangintza integratuaren ikuspegitik garatu behar diren erabilera desberdinak kontuan hartzea (lehen sektorea, biodibertsitatea, ura, klima-aldaketara egokitzea eta arintzea, etab.).

Hizlaria: Maite Uriarte Ricote, EHUko Administrazio Zuzenbidean doktorea da eta EHUko irakasle titularra. Bere ikerketa ildo nagusien artean daude: Ingurumen Zuzenbidea, Lurralde Antolamenduaren Zuzenbidea, Hirigintza Zuzenbidea, Administrazio Publikoaren Erantzukizuna eta Administrazio Bitartekaritza.

2.2.2. GAIA: Debagoienan energia berriztagarrien garapenerako potentziala eta baldintza-eraginak

Helburua: Kontsumoa murrizteko ekintzez gain ere, deskarbonizazioa lortzeko, beharrezkoa da energia berriztagarrien bidez sortzea. Atal honek Debagoiena eskualdean energia berriztagarrietarako dauden aukerak aurkeztuko ditu, eta haien eraginak ikuspegi ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batetik aztertuko ditu.

Hizlaria: Unai Pascual Ingurumen Ekonomian doktorea. BC3-ko Klima Aldaketaren Basque Center-eko Klima eta Ingurune Naturalaren Ikerketa Lerroa zuzentzen du.

3. ARDATZ TEMATIKOA: DEBAGOIENeko GIZARTE- EHUNAREN ERALDAKETARAKO AUKERAK SORTZEKO ETA LANKIDETZARAKO GAITASUNA

3.1. GAIA: Erronka aurrean lankidetzaren markoa

Helburua: Eskualdeko hainbat eremutako eragileen arteko lankidetzaren garrantzia aurkeztea erronka konplexuei aurre egiteko. Eskualdeko eragileen eta gizarte zibilaren ekosistema aurkeztea, energia-trantsizioa sustatzeko dauden gaitasunetan eta erronketan arreta jarritz.

Hizlaria: Miren Larrea, Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua eta Ekonomian doktorea da Deustuko Unibertsitatetik. Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzailea.

3.2. GAIA: Eskualdeko sektoreak

Helburua: Eskualdeko Sektore ezberdinetako – INDUSTRIA – GIZARTE BAZTERKERIA ETA LANDA EREMUA-BIODIBERTSITATEA - eragileek energia-trantsizioari buruzko beren ikuspegia partekatzeko aurkezpenak. Mahai sektorialek galdera honi erantzungo diote: -Nola kokatzen dira sektore eta eremu sozioekonomikoak energia-trantsizioaren aurrean?, Zein eszenatoki ezarri beharko lirateke haien beharrak eta lurraldearen beharrak asetzeko?, Zeintzuk dira egoera hauek gertatzeko baldintzak edo inguruabarrak (baliabideak, aldaketak, etab.)?